



Nature Change

Kimia Kamvari

Kimia Kamvari's work is a reflection on the natural world and its constant state of flux. Her abstract compositions, often in shades of grey and white, evoke a sense of movement and transformation. The artist's use of organic forms and textures suggests a deep connection to the natural world, capturing the essence of change and the passage of time. Her work is a testament to the beauty and complexity of the natural world, inviting viewers to contemplate the ever-changing landscape of nature.

© Kimia Kamvari 2023

Artwork by Kimia Kamvari



Aurkibidea

- 09 ERRAUTSETATIK ERRAUTSETARA,
HAUTSETIK HAUTSERA
Koenraad Van den Driessche
- 43 NATURAREN ELEMENTUEN INDARRAK
Michael Marder
- 73 ELKARRENGANAKO HERRESTATZE-EFEKTUAK
Lidia Montesinos Llinares
- 93 Irudien aurkibidea
- 99 Gogoratu hegaldia, txoria hilkorra da
Kimia Kamvari eta Nader Koobhaki



ERRAUTSETATIK ERRAUTSETARA, HAUTSETIK HAUTSERA

Koerwaad Van den Driessche

Arratsalde on. Erakusketaren bisitari hasiera emango diogu. Bisita honetan geologo baten begiekin begiratuko ditugu Kimiaren lanak.

Nature Change erakusketaren izenburua naturan gertatzen diren eraldaketa eta metamorfosien multzo moduan ulertzen dut. Greziarrek aspaldi ohartarazi ziguten ezet ez dela betiko. Etengabeko jarria da dena. Heraklitok esan zuen ezin dela ibai berean bi aldiz bainatu.

Kimiak erakusketa honetarako sortu zuen unibertsoa lehen aldiz ikusi nuenean, ilusio handiak piztu zizkidan berehala; erakusketaren logikak, izan ere, *t-geologiaren*¹ alorreko ikerketetan garatzen joan naizen kontakizun epikoarekin konektatzen zuen nolabait.

Eta hortik abiatuta kontatu nahi dizuet, Kimiaren obrarekin lotuta, "nondik gatozen eta nora goazen" dioten historia handien inguruan niri kontatu izan didatena. Ohartarazi nahi dizuet ezegunak izan daitezkeen prozesuen inguruan arituko naizela. Ez da ezinbestekoa kontaketa guztiari jarraitzea. Homeroren *Iliada* bezalakoak izango da. Epopeta horretan herri eta heroi asko aipatzen dira. Ez da beharrezkoa den-dena

¹ T-geologia terminoa *geologia* eta *teologia* hitzen arteko nahasketa bat da, eta fenomeno geologikoen behaketak eta oro har historia naturalak sorrarazi dituzten pentsamendu metafisikoak azalzeko sudez sortu dut. Gai hori buruz, Albert Einsteinek honako hau esan zuen elkarrikerita batean:

Ez nait atsea, eta ez dezaket esan panteista nirendi ere. Esku artean dugun arazo zabalgu da gure gogamen mugatuen artean. Erin duz parabolak baten bidez erantzen? Gure gogamenak, guztiz trebatuta egoan ere, ezin da unibertsoa ulertu. Liburutegi erraldoi batzeta sartzeak dagoen une ruki baten posizioan gaudu: uneko, hokuntza okertan idatzitako liburuak ezalitzako horma gata horiek

ikustean, badaki norbanek idatzi bide zituela liburu horiek. Ez daki ez norik ez nola. Ez diru ulertzen liburu horietako hokuntzak. Unekoak plati definitu bat ikusten da liburuaren antolaketa, burrenkeria misterioa bat, doi-doi sartuzten duen arren guztiz ulertzen ez daena.

Nire ustez, jarrera hori du giza gogamenak, batura gogamen lundu eta ikasitak ere. Jantxoaren aurazan. Bikariki antolatutako unibertso bati ikusten dugu, zenbat legeri obeditzen dien antolaketak bat, baina lege horiek lasoiki baino ez ditugu ulertzen. Gure gogamen magrack ezin dute erdiegata kontrolatuok mugatzen dituen indar misterioa. (Viereck, 1940: 372-373).


NATURAREN ELEMENTUEN INDARRAK

Michael Marder

Elemental eta *elementary*, alde handia dago ia-ia bat eta bera diren bi adjektibo horien artean.*

Naturaren elementuei dagozkien errealitateak oso korapilatsuak dira, hainbesteraino non ulertezinak ere baitira. Gure gorputza eta gogoa inguratzen dituzte bikainki; tinko lotzen edota kolokan jartzen dituzte gure itunak; gure garraioibideak gidatu edota beren bideetatik irtenarazten dituzte; gure irudikapen kontzienteen muga estuak urratzen dituzte; eta gure gogoeta eta birketaraino barneratzen zaizkigu, ezari-ezarian lurra oinazpitik kentzen digutelarik. Hasieran jainko suminduen itxura hartu zuten. Itxura horrek, ondorengo irudikatze alkimikoak bezala, ekarpen bat egitea xede zuen: naturaren esanahia argitzen laguntzea zientzia aurreko edo parazientzietako ikerlanen bidez. Horretarako,





ELKARRENGAKO HERRESTATZE-EFEKTUAK

Lidia Montesinos Linares

Nature Change erakusketaren abiapuntua bidai bat da, migrazio-mugimendu bat, Kimia Kamvari artistak 2015eko irailen Irandik Euskal Herrirantz abiatu zuena. Alde batean Teheran, 12 milioi biztanleko hiria; eta bestean Astigarreta, Gipuzkoa barnealdeko auzoa, 15 bizilaguneko landa-eremua. Bizifoki- eta bizimodu-aldaketa erabateko horrek eragin nabarmena izan zuen artistaren lanaren forma eta erritmoan.

Kimia Kamvarirekin eta haren obrarekin garatzen joan naizen elkarrizketa Donostiako Ingurumen Bababideen Elxean hasi zen. Cristina Enea Fundazioaren egutzan, non nik behin behineko erakusketen koordinatzaile moduan lan egiten baimen. Kimiak hara jo zuen *Natura aldaketa* izeneko bere lanaren inguruko erakusketa bat proposatzera. Ordurako, Kimiak egonaldi artistiko bat egina zuen –200ko urritik 2017ko urtarri-leta– Tabakalera Kultura Garaiki-dearen Nazioarteko Zentroan, eta lanez lehe-lehe egindako dossier bat zekarren. Gure solasaldiak aurrera egin zuen piskanaka-piskanaka, eta lehenengo mugimendu hori hartu zuen abiapuntutzat: bidai. Izan ere, hainbat urte lehenago, 2007an, ni ere bizitokiz aldatua nintzen. Bartzelona hiria utzi eta Nafarroako mendaldeko Goizuetara joana bainintzen bizitzera.

Nolabait ere, gure elkarrizketa esperientzia lomon horrek markatuta hasi zen, nahiz eta, nire kasuan, bidai hura ikerketa etnografiko baten hastapena izan zen, zena, denboran aurrera, antropologiako doktore-tesi bilhurtu baitzen.¹

Kimiarrekin hasitako solasaldiak aurrera araitu zuen beste hainbat topaketatan, eta haren Astigarretako etxeraino ere eraman ninduen, non gertutik ezagutu ahal izan bainituen haren laneko espazioak, haren obrak –hariatako batzuk artean ere bukatu gabeko– eta baita naturako aldaketak erregizatuzko erabiltze ari zen teknika eta materialen inguruko ideia eta ban-surketak ere, 2017a bukatzen ari zen, eta adostu genuen hurrengo udazkena une egokia izango zela publikoan haren lanen emaitzak erakusteko. Hilabeteak gertuena aurretik erakusketara prestatzeko, eta Kimiak beste egonaldi artistiko bat egin zuen Fagus alkiza Interpretazio Zentroan, *Sormen-ari kabua* izeneko egonaldi-programa inauguratuz Astigarretatik nahiko hurbil dagoen herri horretan, Alkizan. Bere ikerketekin jarraitzeaz gain, Kimiak katalogo honi bide eman dien erakusketa prestatzeko baliatu zuen egonaldi horretako denbora, eta hala sortu zen *Nature Change*. Nader Koochaki komisarioak antolatua eta 2018ko azaroaren 22an inauguratua.



Gogoratu hegaldia, txoria hilkorra da ta

Kimia Kamvari eta Nader Koochaki

Nader. — Teherandik alde egin dugun bakoitzean, deigarria gertatu zait nola etorri izan zaizkizun lagunak etxera: eguna eta ordua edozein izanik ere, nola etorri diren hegaldiaren aurreko azken orduak zurekin igarotzera. Oso une ederrak dira, non ez baita zure partitzea ospatzen, baizik eta elkarrekin egotzaren plazera. Zure lehenengo partitzean ez nizun lagundu, lehenago itzuli bainintzen Astigarretara. Halere, oso ondo oroitzuten dut nola deskribatu zenidan egoera, baita bidaia osoan irauin zizun gogo-aldartea ere. Loeri-egoera oso luze bat aipatu zenidan. Kontatuko didazu berriro nola bizi izan zenuen zure migrazio berriranzko lehen urrats hura?

Kimia. — Migrazioa sortzetikoa zaigu. Ni lur arrotz batean jaio nintzen, eta gero itzuli nintzen nire familiarekin haren jatorrizko herrira. Hambat urte geroago, bai nik eta bai nire ahizpak berriz emigratu genuen beste leku batzuetara, eta bertatik daki orain gauden tokian gertatuko ote garen. Gertaerakate batek mugituzen gaitu, baina beti dago jatorrizko motibazio bat. Komplexurik gabe esaten dut maitasuna izan zela nire migrazioaren arrazoia. Horrek izatera poetiko bat eman dio nire prozesuari, *Nature Change* erakusketan antzeman daitekeena.

Loeri hitza erabili duzu, eta gustatu zait, loaren eta esna-aldiaren arteko egoera bat adierazten baitu. Partitze baten aurreko egoera heriotzaren parekoa da: baliteke une hori izatea inguratzen zaituen oro azken aldiz ikusten duzun aldia. Momentu horretatik aurrera, gauzak aldatu egiten

dira. Amets batean bezala, zure bizitzaren ikusle bihurtzen zara, eta beharriko guztia sinbolo eta seinale bihurtzen da. Nire kasuan, une hartan bizi izandako emozioak eta aurreko egunetako lo-etzak eragindako neke fisikoak areagotu egin zuten egoera hura. Gorputza eta gogoia bat zetozen istant bereberean, eta jakitun nintzen laster desagertuko zela leku batean sustraiak bota zituen "ni" hura. Lagun-taldea, agurra, aireporturako bidaia eta are heriotza ere, behin eta berriz agertu zitzaizkidan nire ametsetan denbora batez.

Teherango aireportua toki estu eta jendiez bete da. Horregatik, hegazkinera iristen zarenean, halako buretasun bat jabetzen da zutaz, lasaitasun ia narrotiko bat. Gogoa dut hegazkina airturatu zenean huzaz egon nintzela karpora begira, lainoak, lurreko marak eta mendien forma begiesten. Hain zuzen ere, gogoa iruntzen ari nintzela kontzientzia ematen zidan, Irango mugak atzean uzten ari nintzela berresn. Zeharo ahaztu nuen hegazkin baten barnean nengoela. Borborka sentitzen nituen emozioak eta maitasuna, atzean uzten nuen lekuarekiko maitasuna eta helmuga nuen lekuarekiko maitasuna. Istanbulen 12 orduko geldialdia egin nuen. Gogoa dut eten-gabe lokartzen eta esnatzen nintzela, nire mailetaren gainean bermatuta hegazkineratzate-ate baten ondoko txokoan. Astigarretara inisi nintzenezan, desorientatuta eta erdi lo pasatu nituen hainbat egun. La aste batez egin nuen lo, gorpuzak bere aurreko lekutik bereizten jarraituko balu bezala, eta ingurune berrira egokitzen arko baltz bezala.

Nature Change

ISBN: 978-84-09-21350-4

Nature Change Kimia Kamvariren bakarkako erakusketa bat da, 2018ko azaroaren 22tik 2019ko otsailaren 22ra bitartean Cristina Enea Fundazioaren Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxean estreinakoz erakutsi zena. Nature Change erakusketa haren harira sortutako eta bertako dokumentazio grafikoarekin ondutako liburua ere bada. Liburuak, besteak beste, ondorengo egileen testuak biltzen ditu:

Elkarrenganako herrestatze-efektuak, Lidia Montesinos

Naturaren elementuen indarrak, Michael Marder

Errautsetatik errautsetara, hautsetatik hautsera, Koenraad Van den Driessche

Gogoratu begaldia, txoria hilkorra da, Kimia Kamvari eta Nader Koochaki

Liburua hiru hizkuntzatan argitaratu da: euskara, gaztelera eta ingelesa; eta Filiep Tacqek diseinatu du.

Kimia Kamvari (Colonia, 1986) artista iraniarra da. Teherandik Astigarretara (Beasain, Euskal Herria) bizitzera mugitu zenean, bere lanek bira kontzeptual garrantzitsu bat jasan zuten. Margolaritzaren alorrean hezitakoa, azken urteetan bitarteko pikturikoaz gogoeta egin du, argazkigintza, material organikoen erabilera eta instalazioaren gisako formatuetan lan eginez. Bere lanetan naturari so egiteko modu berezi bat nabarmentzen da, haren lekuko direlarik bere azken bakarkako erakusketak: *Aperion* (2018, Dastan Gallery / Electric Room), *Nature Change* (2019, Cristina Enea Fundazioa) eta *Event Horizon* (2019, Dastan Gallery /Dastan's Basement).